



[b]
BARREN

BOIBARKO ASTEKARIA

585. zkia.
XIV. urtea
2006ko irailaren 22a

Debarroko Haurrentzako XXXII. Perretxiko Lehiaketa

Mila kolore eta zaporetako perretxikoak

KUADRILLATEGI PROGRAMA

12 - 14 urteko
gazte-koadrilentzat

Ondo pasatzeko
lagun berriak egiteko
koadrilan euskaraz egiteko ...

PROBATU NAHI?

Gu
probatzera
goaz!

Eta
zuek?



Animalzen bazterale:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR BAZTERALEA




Elgoibarko
Udaltza



Irujo
Aldundia



Euzko
Jauriaritza



AITZOL GARMENDIA



SARE GURRUTXAGA

ZOZOAK BELEARI...

Sare,
Irailaren erdi-alde honetako euri zaka-
rek azkar itzali ditizten udako gar beroak
eta baita azkar baretu ere askoren zoro-hai-
zeak. Joan zitunan jaiak, bueltan gauden
gure lan-rutinan. Beste futbol liga penagarri
bat. Enegarren kurtso politikoaren atarikoak.
Txino eta Uxueren hitzetan agertutako opor
osteko sindromea.

Egiari zor, aurten nik neuk sumatu dinat
hortik zeozer. Nire tankerakook nekez hart-
zen dugun azal koloretzua arras zurbildu
zunan irailako egunsentian lanera bidean
jarri orduko.

Hik ere agian izango hunan halakorik,
Sare. Baina beste perspektiba batetik, ala?
Kastilla aldean bikain ateratako paper-arte-
koen ostean eman ditun lan munduan le-
hen urratsak. Ostera, bide hauetan bilatzen
huena aurkitu ez-eta, bahoia ikasleen mun-
dura bueltan, bigarren kapitulu unibertsita-
rio bat zabaldu asmoz hire bizitzaren liburu
gaztean.

Inbidia apur bat ematen didan, ez zan
pentsa. Irifartxo batez gogoratzen ditinat ga-
rai haietako pasadizo eta gertaerak. Esanda-
ko eta egindakoak, entzundako eta ikusita-
koak. Garai politikak. Oroitzapen goxoak.

Edonola ere, bigarrenengo batez pentsat-
zen jarrita, ez dinat uste animatuko naize-
nik. Azterketa artezketagatik aldatu dinat
eta gaintitu beharreko kredituak ordaindu
beharrekoekin. Oraingoz horrela ondo.

«Bahoia ikasleen
mundura,
bigarren kapitulu
unibertsitariora»

AITZOL

«Banoak,
olatuak elkar
apurtzen hasi
baino lehen»

SARE

Oraingoz horrela ondo bahago, poz-
ten nauk biziki Aitzol. Hori baituk ekin ge-
nion bidaia honen funtsa: unean unekoare-
kin ondo, gustura, pozik sentitzea, alegia.

Norberak hor nonbait edo han zehar
edo hementxe bertan bere lekutxoak aurkit-
zen duenean, bazirudik gorputz barruko
eritmo guztiak bateratzen direla. Imajinatu
une batez itsasoko olatu guztiak alde bate-
ra joango balira, batera, leunkiro...ze bare-
tasun, ez da?

Aldi berean, ordea, hire bizitzako unerik
bizigarriena, suspertzailena bizitzen ego-
tea daukag, hormonak %200-era produzit-
zen, fisikoki lehengarri, intelektualki ezin ins-
piratuago baina baretasun hori barrenean,
hire leku horretan gustura hagoelako, ha-
goen lekuan hagoela.

Sekulako esperientzia izan duk azken
bi urte hauetakoa, Aitzol. Jendearekin lan
egiteak duen gauzarik ederrenetarikoa,
egunero hain pertsona ezberdinek eskaint-
zea diaten aberastasuna duk. Elkartruke
horren partaide izatea. Zoragarria bene-
tan.

Baina banoak, olatuak elkar apurtzen
hasi baino lehen. Korrante pixka bat sart-
zea ez duk txarra izaten beste portu batzuk
ezagutzeko. Eta beste itsaso batzuk, eta
beste irla batzuk, eta beste marinel batzuk.
Baretasun hori topatzen dudanean eztan-
da egingo dik nire barrenak, eta ze goza-
men orduan!



GIZAKI BATEN BENETAKO BALIOA BERE BURUAZ ASKE
GERATZEA NEURTZEKO AHALMENAK EZARTZEN DU



Albert Einstein

Mundua ulertzeko manierak

Mobuto Senegalekoa da, baina Bilbon bizi da. Gaztelaraz nola edo hala egiten du eta orain euskara ikasi nahi du. Dagoeneko, hilabete batzuk daramatza eskalategian eta gauza batzuk esaten ditu. Esaterako, "Ni Euskal Herrian bizi naiz" Berak badaki nora etorri den, berak badaki nondik datorren, baina berak ez daki oraindik bere ametsak zer egingo duten. Euskarak besapeetan kili-kili eragiten diola dirudi: ahoa zabaldu orduko barrez hasten baita. Batzuetan, txorien kantuekin parekatzen du euskara, bereziki irakasleak erdi txantxetan esaten dionean: Mobuto, belari horrek zer esaten du? Belaggi honek..., eta orduan belari-gingila ukitzen du adierazteko txori horren habian arrautza eruteko denbora falta duela. Hala ere, badaude gauza asko ulertzen ez dituenak: bertako asko euskaldunak izanda ez egitea edota ez ikastea. Horrelako gauzak tabernan daudela esaten dizkio irakasleari aho-petan, badaezpada, ze Mobutori jendearekin haserretzea ez baitzaio gustatzen. Lehengo egunean, atsedendaldian ostean, ariketa bana egin zuten Mobutok eta ikaskideek; ariketa polit bat irakaslearen ustez, berrab egiteko aukera ematen duen horietakoa. Eta orduan bakoitzak bere etxea deskribatu behar izan zuen: Zenbat metro karatu duen, logelak nolakoak diren, sukal-

dea txikia ala handia den... Azalpenak entzutean Mobutoren bihotza argirik gabe gelditu zen, ilunpetan, eta Senegaleko familiaren lastozko etxea irudikatu zuen kriselua piztuta. Halarik ere, Mobutok aurrera egin zuen, berak oso ondo baitaki errealitatearen gogorari aurre egiten, eta orduan La Guia Inmobiliaria. Constructora y promotora egunkaria hartu eta Bilboko pisu dotore bat aukeratu zuen ondokoari kontatzeko. Gainera, ikaskide guztiak gonbidatu zituen bere etxea barutik ikus zezaten: Nire etxeak lau logela ditu. Berak ez zuen esan, baina logeletan andrea eta seme-alabak zeuden. Nire etxeak egongela handi bat du. Berak ez zuen esan, baina egongelan munduko bidegabekeriez arituko zen. Nire etxeak terraza bat du. Berak ez zuen esan, baina terrazatik gau izartuetan Afrika ikusten zen eta Ceutako haresian kateatutakoa askatzen ahaleginak egingo zituen. Berak ez zuen esan, baina etxeko horma batean ALARMA irudikatu zuen lapurrak ez sartzeko, eta zera pentsatu zuen: aspaldian, Paris izan zen, hurrengo, zein izango da? Iragarkiaren oinak etxearen prezioa zekarren: 11.336 (135 milioi). Mobutok oraindik ez ditu horrelako zenbakiak ikasi eta ez da jabetzen, baina besteok bai eta hori okerragoa da.

JUAN LUIS MUGERZA

Zer gertatzen da Santa Klara auzoan?

Azken asteotan Santa Klarako auzokideak haserre dabilta. Uda partean lur berria bota zuten etxeetako atari inguruan, eta dagoeneko dozena bat eror arazi dituen lur irristatzailea da. Baina horrek ez ditu hasarrarazi, Udalaren jarrerak baizik. Abuztutik aurrera, jakin dugunez, 5 salaketa daude, baina inork ez du ezer egin. Agian diru guztia Plaza Handian eta Udal inguruan gastatzen ari direlako edota Santa Klarakoa ez denez ikusten...

Neska gazte batek besoa hautsi omen duela ere esan digute, eta azkena, joan zen larunbatean, 76 urteko emakumea erori -bigarren aldiz- eta "garezurreko haustura" dauka. Donostiako ospitalean omen dago, larriki zauritua.

Hirigintzako arduradunari ere idatzi diote, eta erantzunik ez, konponketarik ez, eta gainera modu txarrean bidali dituzte.

Hau da Elgoibarko Udalaren ohiko jarrera. Guk ondotox dakigu. Baina itxuraz, herritarrek ere, jarrera prepotente hori jasaten ari dira. Noiz arte? Zerbait gehiago pasatu behar da konponketa arrunt bat egiteko?

ENBIU

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.




barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZALEA** Jaione Unanue **KOLABORATZALEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Uruzuno **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.545 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **San Lorentzora bidean sasi mordo dago:** "San Lorentzora bidean, Ibar Txiki eta Ibarrenea baserrien inguruan belarrak oso altu daude. Sasi eta sastraka mordo dago. Gainera, sekulako usain txarra egoten da. Ez dakit nori dagokion hori txukuntzea, baina apurtxo bat zaindu beharko lukete ingurune hori. Jende asko ibiltzen da pasiaran San Lorentzorako bide horretan, herrian pasiarako dagoen tokirik erabiliena da".

• **Bernardo Ezenarro kaleko lorategiak txakur kakaz beteta egoten dira:** "Azkenaldian Bernardo Ezenarro kaleko berdeguneak ez dira batere zaintzen. Txakur kakaz beteta egoten dira eta gainera, ingurune guztian demaseko usain txarra egoten da. Errudunak txakur jabeak dira. Bakoitza bere txakurraren kaka jasotzeaz arduratu beharko litzateke. Ez da hau ingurune bakarra, herriko beste leku askotan ere ikusten dira txakur kakak. Urbitarte inguruan eta Merkatu Plaza atzeko zubi zaharrean oso ohikoak dira. Ez dakit zein den irtenbidea, baina zerbaitegin beharra dago."



• **San Rokeko parkea oso egoera txarrean dago:** "Herriko parkeak berriro zituztenean, San Rokeko parke txiki hau konpontzea ahaztu zitzaion. Egoera penagarria dago. Parke moduan erabiltzeko asmorik ez badago, beste zerbaitegin zitekeen bertan, baina behintzat apur bat txukundu beharko litzatekeela uste dut. Ez dut uste lan handia denik."



TXALOAK

• **Txalo bero bat Udal Musika Bandari:** "Txalo, txalo eta txalo Udal Musika Bandari, joan zen domekan eskaini ziguten kontzertuagatik. Nolako gozamen hartu genuen bazkal aurretik, egun guztirako poza. Bost zentzumenak piztuta zituzten goiko aldeko mutilek ere, gustura egon ziren kontzertua entzuten. Mautxixa txarangako mutilak ziren eta izugarri gozatu zuten. Zelako musika banda daukagun Elgoibarren! Eta Txomin? Bikaina!".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikoko Saileko zuzendaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN *Luma*

Eurak eta gu, konbinazio bikaina

Euren musu eta haserreek, irribarre eta negarrek, umore on eta burugogorkeiek, behar dutena ematen diete udalekuei, horiek gabe nekez izango baitira diren bezain ahaztezinak udako egonaldiak. Gure arteko harremanak ere badu eraginik egun horiek oroitzapenen kutxatxoan betiko gordetzerakoan, eguna ez da eta haurrak oheratzean amaitzen. Eurak eta gu, umeak eta begiraleak, konbinazio bikaina, beraz, helburu guztiak betetzeko. Hala ere, ez gara ohartzen, gu geu gara helburuekin batera betetzen garenak. Txantxa jolasetako barre algarekin, ur jolasetako baldakadekin, herri kiroletako amasestuekin, Maritxuren otorduekin eta azken gaueko dantzekin denok gozatzen dugulako, eta gozamenaren gozamenaz beteta sentitzen garelako. Bizitza bizitzeko une aproposak aipatutako guztiak, zinez gogoangariak.

Bat, bi, eta hiru, linternak itzali eta laga zuen albuari, gaueko linterna itzaltzen zuten umeek loak hartu aurretik. Berdina esango nieke orain ere, linternak itzali eta alboan lagatzeko, datoren urtean berriz ere piztu ahal izateko. Hori bai, urtean zehar pilak karga ditzatela, udalekuak hor egongo dira eta, ez bakarrik euren zain, baita gure zain ere.

Ane Odria

[ZORTZIKO TXIKIAN]



SILVIA SARMIENTO

MADALAKO
KIOSKOKOA

MAITE DUZUN...

Abestia.

Hotel California (Eagles)

Pelikula.

"El Diario de Noa".

Hiria.

Donosti bizitzeko eta Brasilgo edozein hiri bisitatzeko.

Aldizkaria.

Euskal Herria.

Prensa arrosako pertsonaia.

Belen Estebanek grazia egiten dit.

Jantzia.

Galtza-gona udan eta bufanda neguan.

Ohitura.

Gauetz, oheratu aurretik irakurtzea.

Joko zaleak al gara elgoibartarrok?

Bai, asko. Hemen lanean hasi ostean konturatu naiz jendeak zenbat loteria, kiniela, bono loto, e.a. jokatzen duen.

Superstizio asko al dago?

Dexente. Zenbakiak ez errepikatzea, zenbaki bazuak ez izatea, azkenengo zenbakia hau edo hura izatea... denetarik dago.

komikia

Hil da gero...



Kokoe 071

[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE

1932an jaioa

«Eurua»

Ni umetan txakur txikixa, txakur haundixa, errial, errial bikua eta gero papelezko pezetia ezagututakua naiz. Zentimua ez naban ezagutu, hori nere ama zanak bai, baiña nik txikixena bost zentimokua ezagutu naban. Oiñ eurua etorri da, eta ondo moldatu naiz, gutxigora behera hartu diot tamaiña.

Azkenian beti pezeñiakin pentsatzen dogu. 15 euro balixo badau zeozek, 2.500 pezeta balagatzen dogula pentsatzen dogu. Beti kanbi-xua egitten. Jende askok tratuak pezetatan egitten ditte

ondiokan, eta gero ematen dio bueltia. Nere ama zanak errialak erabiltzen zittuan tratua egitteko. Harek behi bat saldu bihar zabanian, beti 1.000 errial edo 2.000 errial esaten zaban, eta gero kalkulatzan zaban pezetatan zenbat diru zan. Gaur egun basarritarrak tratua pezetatan egitten dabe.

Gauzak garestitu egin dira. *Re-dondeo* horrekin danak gora egin dau. Bost zentimo pentsatzen dogu gutxi dala, baiña horrek pezeta asko dira. Bizimodua asko garestitu da, eta beti gora dixe, gaiñera.



[GURE BERBAK]

Kausazko egitura batzuk: partizipua eta beste

Kausazko esaldixeri amaieria emateko, hiru eratakuak ekarriko doguz gaur. Hiruretan berezixena lehenengua da, aditzaren partizipio hutsarekin egitten dana (*izan, egin, hartu, saldu*), batere aditz laguntzailerik gabe.

Danian gu ondo hartu gaittue oiñ artian. Edo geu onak izan, edo txukunak izan, edo...

- *Etxok ezertan asmatzen gure Inaziok. - Bai ba, aldrebes samarra izan...*

Beste bixak, berriz, arruntaguak dira Euskal Herriko toki gehixenetan: -TZIAGATIK(AN) eta ELA TA. Hona jarraian adibide batzuk:

Neskari hola helduta jutiagatikan, hola helduta jutiagatikan, "doscientos cincuenta pesetas", multia.

Ba orduan ere, ointxe moduan, itxasuak, bere terrenuak dirala ta, noizik behiñetan negu gogorrian igual kamiño pusketak eta botatzen zittuan.

Frankon kontrakuak giñala ta, kontua dok sei urte inguru egin giñuzela soldau.

Egun baten pentsau gendun, beori bakanrik zaguala ta, beste batzuk juten ziral ta, Benidormera jutia.

Jesus Mari Makazaga


URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Liberty
Aseguruak

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Malape taberna

Orain astegunetan



San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43


Malape
Elgoibar 48145

MARIANO FERRER

«Irratia entzuten dudanean sentsazioen bila aritzen naiz»

2004an jubilatuz zen Mariano Ferrer kazetaria, baina oraindik ere, toki askotan ikus dezakegu. Gaur El-goibarren izango da. 18/98 prozesuaren gaineko hitzaldi bat eskainiko du Jone Goirizelaia abokatua eta J.M. Mendizabalekin batera Herriko Antzokian. Interesatuak, arratsaldeko 20:30ean duzue zita.

Argazkiak: Dani Blanco/Argia



- 2004an jubilatuz zinen. Kontaiguzu, nolakoa da orain zure ohiko egun bat?

Ez da hainbeste aldatu. Irratira programa egitera bakarrik joaten nintzen, gainontzeko artikulu guztiak etxetik idazten nituen. Etxea zen hein handi batean nire lantokia, irakurtzeko edo pentsatzeko lekua. Eta berdin jarraitzen dut. Egunerokotasunak ematen duen presiorik gabe, baina etxetik lan asko egiten dut oraindik. Lasaiago bizi naiz, beranduago joaten naiz ohera eta batez ere, beranduago jaikitzen naiz. Gainera, ez naiz oheratzen hurrengo eguneko programan pentsatzen.

- Urte askotan zurea izan da herritar askok entzuten zuen lehenengo ahotsa. Norena entzuten duzu zuk orain?

Denetarik, zapping egiten dut. PP eta PSOEren medioen artean lehia handia dago, Ser edo Cope artean adibidez. Euskal Herrian gertatzen denaz informatzeko Radio Euskadi eta Herri Irratia entzuten ditut. Sentsazioen bila aritzen naiz, transmititzen dituzten jo-kaerak gustatzen zaizkit albistea bera baino gehiago. Informazioa prentsatik edo telebistatik jaso dezaket.

- Zein albiste emateko jantziko zenituzke berriro irratiko kaskoak?

Ez nituzke berriro jantziko, bukatu da.

- Eman dituzun albisteen artean sekula ahaztuko ez duzuna?

Asko, baina hiru aipatuko ditut. Lehenengoa: Bera-zadiren hilketa. ETak hil zuen enpresari elgoibartarra, une latzak izan ziren. Bigarrena: Mikel Zabalzaren hileta egunean tanke eta polizia



Hondarribian sartu ziren eguna. Hirugarrena: Intxaurrondon gertatu zen guztia. Beno, eta nola ez, Francoren heriotza. Kristau batek ezin du beste bat hiltzea desiratu, baina urte askoan egon nintzen Franco hiltzeko zain.

• **Irratiz nahi zenuen guztia esateko askatasuna zenuela zirudien. Existitzen al da adierazpen askatasuna medioetan?**

Bai. Nik nahi nuena esaten nuen, baina kriterioz eta ondo pentsatu ostean. Beste gauza asko ez ditut esan. Ohiko bizi-moduan bezala. Inguruko jendeari ez diogu pentsatzen dugun guztia esaten, hori ez da ona, harremana puskatu daiteke. Nik entzuleekin harreman honestua neukan, ez nien sekula gezurrik esaten, eta benetan pentsatzen nuena esaten nien, hori bai, esan beharreako ondo pentsatu ostean. Hala ere, nire lankideek baino askatasun handiagoa neukala uste dut.

• **Irratian egunkarietan zetorrena kontatzen zenuen. Zenbat egunkari izaten zenuen eskuartean?**

Egunkarietako editorialak eta iritzi artikulak bakarrik irakurtzen nituen, ideiak biltzen nituen, analisiak, ideologiak... egunean 7 edo 8 egunkari irakurtzen nituen.

• **Egunkari bateko zuzendaria ere izan zara. Nola gogoratzen duzu Egin-eko etapa?**

Ilusioa eta kezka %50ean. Une hartan mota hartako egunkari bat ateratzea, egin genuen moduan benetan polita izan zen. Baina proiektuan barneratu ahala, konturatu nintzen ordu hartan gauzak ondo

egiteko medioak falta zitzaizkigula. Eman beharreko pausua zen, baina ez geunden guztiz prest.

• **Eta itxi zuten eguna gogoan al duzu?**

Bai, noski! nola ahaztu egun hura! 97ko uztailea zen. Egin-ek aurrera egitea gustatuko litzaidake. Azken finean, nik egindako lan handia zegoen han, ez dakit lan ona edo txarra, baina asko izan zela badakit.

«Bake
prozesua luzea
eta gogorra
izango da»

• **18/98 prozesuaren kontra azaldu zara. Herritarrak ondo informatuta gaude-la uste al duzu?**

Informatzeko aukeratzen dugun medioaren arabera, hobeto informatuta egongo gara. Epaiaketaren egunerokotasuna ez da jarraitzen, ulertzekoa da. Baina epaiaketaren nondik-norakoak ulertzeko informazio nahikoa dago. Interes apur bat daukanak, ondo informatzeko aukera badauka.

• **Zergatik eman diozu zure babesa plataforma honi?**

Arrazoi pertsonala izan da. Epaiaketa horretan sartuta dauden pertsona asko

ezagutzen ditut eta badakit egotzi zaizkien karguak gezurretakoak direla. Ez da bidezkoa. Ezin nintzen eskuak gurutzatuta gelditu. ETArekin kolaboratzea egotzi die epaileak eta horrek ez dauka zentzurik, berak ateratako ondorio bat da, eta ez dago hori egiaztatzen duen probarik.

• **Su eten garaian gaude. Euskal herritarrei politikaz hitz egiteko askatasuna iritsi al zaie?**

Hori euskaldun bakoitzaren arabera da. Nik beti izan dut politikaz hitz egiteko askatasuna. Grazia egiten dit jendeak politikaz hitz egiteko beldurra daukala esateak. Nik jende askorekin hitz egin dut politikaz. Francoren garaian ere, euskaldun askok beldurra zeukaten, beste batzuk ez genuen eduki. ETaren presentziak beldurtzea ulertzen dut, baina ausartagoa izan behar da.

• **Bake prozesua aurrera ateratzeko beharrezko baldintzak ikusten al dituzu?**

Bai, luzea eta gogorra izango da, horretan arrazoia dauka Zapaterok. Nik eskatuko nioke ez dezala berak gogorragoa eta luzeagoa egin. Bake prozesua honelakoa izan behar da, orain arte bizi izandakoa ere gogorra eta oso zaila izan da-eta. Hau ez da egun batetik bestera konponduko. Azken hiru urteotan, nik uste dut, egunetik egunerera lasaiago bizi garela.

• **Ezagutuko al du bakea Euskal Herriak?**

Noski baietz! ni seguru nago. Ez dakit zein egunetan izango den, baina iritsiko ba bakea Euskal Herrira.

[PROTAGONISTA]



Ruben **Arozena**

Datorren irailaren 29tik urriaren 15era, Ruben Arozena komikigile elgoibartarrak azken urteetan eginiko lanen erakusketa izango da ikusgai Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa gelan. 17 urterekin hasi zen Ruben Ipurbeltz aldizkarian kolaboratzen, eta ordutik aurrera, lan handia egin zuen komikigintzan. Bestalde, Ruben Arozena Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren irakaslea zen, eta bere lankideek antolatu dute erakusketa hau. Datorren barixakuan inauguratuko da erakusketa, arratsaldeko 19:00etan. Ruben Arozena iazko abenduaren 30ean hil zen 39 urte zituela, bihotzekoak jota.

[NOTIZIA]

420.000 euro inbertituko ditu Udalak Gaztelekua eta Ludotekaren proiektuan

Elgoibarko Udalak 420.000 euro inbertituko ditu Gaztelekua eta Ludotekaren lokalak egokitzeko lanetan. Proiektua lehiaketara atera du dagoeneko, eta enpresa egilea aukeratzen denetik, lau hilabete eta erdiko epean bukatuko dira obrak. Beraz, gauzak behar bezala badaoz, 2007ko Aste Santu ingururako izango ditugu Ludoteka eta Gaztelekua Gabriel Krutzelegi kalean.

Bakoitza lokal batean

Babes Ofizialeko etxeen azpiko bi lokal erabiliko dira Gaztelekua eta Ludotekarentzat. Bakoitzak 150m² inguru izango ditu. Ludoteka 5etik 12 urtera bitarteko umeentzat izango da. Bi hezitzaile egongo dira bertan, eta kantu eta jolasen bidez



heziko dituzte umeak. Gaztelekua, bestalde, 13tik 18 urtera bitarteko gazteentzat izango da. Gaztelekuan ping-pong edo futbolina bezalako ekipamentuak izango dituzte, eta gainera, irteerak eta txangoak antolatuko dira.

[ZENBAKIA]

59.657

Elgoibarko Udalak 59.657 euro inbertituko ditu Gaztetxeko teilatua konpontzeko. Abuztuaren 22an inauguratu zen Mupem enpresako lokalean Gaztetxe berria, eta bere ibilbidea ez da oso ondo hasi: ura sartzen da teilatutik. Lehiaketa irabazten duen enpresak 6 aste izango ditu obra amaitzeko.

[ARGAZKIA]



Santa Klarako bizilagunak ez daude batere pozik Udalaren jarraitzearekin. Udalak obra batzuk burutu ditu auzoan, eta lurra oso labainkor geratu da gune honetan. Jende asko erori da lurrera, eta emakume bat gainera, oso larri dago. Marivi Agirregomezkorta alkatea auzokideekin elkartu zen, eta badirudi, egoera hobetzeko neurriak hartuko direla. Argazki honetan ikusten den bezala, aste honetan bertan ez labaintzeko produkturen bat bota dute baldosetan. Ea egoerak hobera egiten duen.

Txankakua Merkatari Elkartearen VI. Feria izango da bihar Plaza Handian



Goizeko 11:00etatik hasita, Txankakua Merkatari Elkartearen VI. Feria izango da bihar, irailak 23, Plaza Handian. Azken urteotan bezala, Txankakua Elkarteak komertzio eta tabernak kalea aterako dira. Feria honen helburua, merkataria herritarrengana hurbiltzea da. Bakoitzak bere produktuak jarriko ditu ikusgai Plazan eta bezeroekin hartueman zuzena izango dute.

Produktu eta zerbitzuen erakusketa eta salmentaz gain, haurrentzako parkea izango da eta txu-txu trenak herriko kaleak zeharkatuko ditu.

600 euro saritan eta opariak

Irailaren 21ean, 22an eta 23an elkarrekin edozein dendatan egindako erosketen tikteta gordetzen dutenek, opari bat jasoko dute bihar, Plazan bertan. Bestalde, eguerdiko 13:30ean 600 euro zozketatuko dira. Azken egunotan Txankakua dendatan erosketak egin dituztenei zozketarako boletoak banatu zaizkie. Guztira 100 euroko 6 txeke zozketatuko dira. Saria erosketen txeketan jasoko dute. Irabazleak bertan egon beharko du zozketa egiten den unean. Zerbaki guztiak agertutakoan bukatuko da zozketa.

[MOTZ-MOTZIAN]

Alzheimer gaixotasunari buruzko mahai informatiboak

"Orain ez nauzu ezagutzen, baina badakit nor zaren" lemapean Alzheimer gaixotasunaren Mundu Mailako Eguna izan zen atzo osteguna, irailak 21. Hori dela-eta, AFAGI Elkarteak gaixotasun honi buruzko mahai informatiboak jarriko ditu bihar, irailak 23, Elgoibarko Plaza Handian eta King-Kongen. Helburua, herritarrek gaixotasun honi buruz dituzten kezka argitzea izango da, eta bide batez, herritarrek kontzientziatzea. Informazio gehiago jaso nahi duenak 669 623707 telefonora deitu dezake.

Yoga ikastaroak urritik aurrera

Sanatana Dharma Yoga Elkarteak urrian irekiko ditu ateak. Elgoibar eta Mendaron eskainiko dituzte yoga ikastaroak. Ordutegi eta aukera desberdinak izango dira. Interesatuak ondorengo telefonoetan jaso dezakete informazio gehiago: 943 748593 edo 685722131.

Merkatu Plazako zozketa

60 euroko hiru txeke banatu dituzte hilabete honetan Merkatu Plazako saltzaileek. Maria Luisa Aranguren, Mari Tere Laskurain eta Juan Mari Agirre izan dira irabazleak. Saria erosketen txeketan jasoko dute eta Merkatu Plazako postuetan gastatu beharko dute.

Debarroko XXXII. Perretxiko Lehiaketa domeka honetan



Karakate Mikologia Elkarteak antolatua, Debarroko haurrentzako XXXII. Perretxiko Lehiaketa izango da datorren igandean, hilaren 24an. Lehiaketa honetan, eskualdeko 15 urtetik beherako haur guztiek hartu dezakete parte. Aurkeztutako perretxikoak egoera onean egon behar dira. Perretxiko guztiak puntuatuko dira eta espezie berezietakoek, puntuazio altuagoa izango dute. Sari banaketa eguerdiko 13:00etan hasiko da. Perretxikoak 14:00ak arte egingo dira ikusgai.



Ikasleen %25ak jasaten du bulling-a Hego Euskal Herrian.

Non dago bulling-ari amaiera emateko giltza?

MARIA ETXABE

Ikaslea

20 urte



“Umeak gurasoekin konfiantza edukitzea oso garrantzitsua da. Bulling-a jasaten duenak lehenbailehen kontatu dezala etxean, gurasoek zer-bait egin dezaten.”

ANA GUTIERREZ

Etxekoandrea

31 urte



“Bulling-a beti egon da eta ez dauka konponbide erraza. Umeek etxean jasotzen duten heziketak eta lagun giroak garrantzia handia dauka. Etiketetik hasi behar da.”

FELI DOMINGUEZ

Administrataria

39 urte



“Gurasoek askatasun gehiegi ematen diete umeei eta irakasleak ere oso lotuta daude, ezin dute ezer egin. Oreak bat topatu behar da, zorrotzagoak izan, agian.”

JAVIER MUÑOZ

Ikaslea

22 urte



“Ez da erraza, baina errespetua zer den erakutsi behar zaie umeei txikitatik. Gaur egun irakasleekiko errespetu guztia galdu dute eta horrek bulling-a areagotzen du.”

[BAI ala EZ?]

Elgoibarren etxe berri gehiago behar dela uste al duzu?

BAI %16

“Bai. Jendeak ez du etxe zaharrik nahi, berriak erosten ditu, ia zaharraren prezio berean. Egiten diren etxe guztiak saltzen dira, beraz, beharra badago.”

EZ %84

“Ez. Parke eta aisialdirako gunek gehiago behar ditu Elgoibarrek herri erdian, eta ez etxe gehiago. Lehen dugu leku gutxi eta inguruak etxez betetzen ari dira benetako beharrik gabe.”

Datorren asterako.... Argalegiak dauden modelook kanporatu dituzte Cibeles pasarelatik. **Modelo argalegiak pasareletatik kanporatzearen aldekoa al zara?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaia Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozeelai.com

1956-2006

Gau-eskolatik euskaltegietara 50 urtean

Durante 50 años
hemos sido muchos
los que hemos
conseguido aprender
euskara.



¿Por qué no te animas tu también?



¡No te arrepentirás!



aek Euskaltegia

Aita Agirre plaza
Tel.: 949 74 13 32

UDAL  **ELGOIBARKO UDALAK**

Nafarroa Enparantza
Tel.: 949 74 27 31

▶ **FLOR MARIA VERA** **EKUADOR [HEGO AMERIKA]**

«5 urteko semeak ez nau oraindik eza»

EKUADORRETIK ESPAINIA ALDERA IHES EGITEA ZEN TXIKITATIK FLOR MARIAREN AMETSA. EZ ZEKIEN ESPAINIAN ZER ZEGOEN, BAINA EKUADOR BAINO HOBEA IZANGO ZENAREN ESPERANTZA ZEUKAN. DUELA 4 URTE HARTU ZUEN AZKEN ERABAKIA. KOSTATAKO ERABAKIA IZAN ZELA KONTATU DIGU FLOR MARIAK, BAINA EZ OMEN DA DAMUTZEN. BERE ASMOA SEMEAK EKARRI ETA HEMEN BIZITZEA DA.



▶ **Zenbat denbora daramazu Elgoibarren?**

Duela bi urte iritsi nintzen Elgoibarrera, baina aurrez, beste bi urtez egon nintzen Donostian. Guztira lau urte daramatzat hemen. 31 urterekin ateratzen nintzen Ekuadorretik, irailaren 26a zen, nire urteguna.

▶ **Zergatik erabaki zenuen zure herrialdea lagatzea?**

Txikitatik neukan buruan Ekuador utzi eta Espainia aldera etorri behar nuela. Ez nekien zer aurkituko nuen hemen, baina hura baino hobea izango zela banekien. Bizimodu gogorra izan dut eta ihes egin behar nuen. Lau seme-alaba utzi ditut han, txikiak urtebete zeukan ni hona etorri nintzenean. Ez zen erraza izan haiek han uztea, baina beraien hoberako izan da ni hona etortzea. Dirua bidaltzen diet eta orain hobeto bizi dira.

▶ **Ba al daukazu Ekuadorrera itzultzeko asmorik?**

Gabonetan seguruenik bisitan joango naiz. Lau urtetan ez naiz behin ere joan. Ez neukan paperik eta egoera horretan bidaiatzea arriskutsua da. Orain lortu ditut paperak, beraz, Gabonetako oportetean Ekuadorrera joango naiz, baina bisitan.

«Nahi izanez gero,
hemen lana badago,
Ekuadorren ez»

▶ **Ez daukazu, beraz, han geratzeko asmorik?**

Ez. Nire ametsa seme-alabak hona ekartzea da. Nik bakarrik ezin dut hemen etxe bat erosi, oso garestia da. Baina nire bi seme nagusiak etortzen badira, denon artean ordaindu ahal izango dugu. Familia hemen osatzea nahi dut. Beste seme bat daukat hemen eta denok elkarrekin bizitzea gustatuko litzaidake. Orain horretan ari naiz buru belarri.

► Norekin utzi dituzu semeak?

Bi txikienak nire gurasoekin bizi dira. Nagusia, 19 urtekoa, kuartelean bizi da eta 18 urtekoak itsasoan egiten du lan. Izugarri gustatzen zaio itsasoa. Hona etortzen bada ere, berak itsasoan lan egin nahi du. Ahal dudanean hitz egiten dut beraiekin eta ondo daude. Txikienak orain 5 urte ditu, ez nau ezagutzen, urte batekin utzi nuen, baina berak ere hona etortzeko gogoia daukala esaten dit.

► Nola hartu zaituzte Elgoibarren?

Oso ondo, ez dut inorekin arazorik eduki. Jende jatorra tokatu zait inguruan eta asko lagundu didate. Donostian lagun onak egin nituen eta haiei esker, sekula ez zait lanik faltatu. Emakume baten etxean lanean ari nintzenean nahiko gaizki pasatu nuen, ez ninduen oso ondo tratatzen. Dena gaizki egiten nuela esaten zidan, gaizki plantatzen nuela, etxea ez nuela ondo garbitzen... bi hilabete iraun nituen haren etxean. Gero beste emakume baten etxean hasi nintzen lanean. Gaixorik zegoen eta hil egin zen. Han oso gustura egon nintzen, oso emakume ona zen eta gauza asko ikasi nituen berarekin.

► Zertan egiten duzu lan?

Orain Debako Kresala hotelean ari naiz garbiketa lanak egiten, baina denetarik egin dut. Etxeak garbitu, nagusiak zaindu, jendeari ilea moztu... nahi izanez gero, hemen lana badago. Ekuadorren ez dago lanik.

► Oso desberdinak al dira Ekuador eta Euskal Herria?

Bai. Ekuadorren pobrezia handia dago. Ez dago lanik eta dagoen lan apurra oso gaizki ordaintzen dute. Ni atun fabrika

batean egon nintzen lanean. Gauzez egiten nuen lan, eta 120 euro irabazten nituen hilean. Oso gutxi da, horrekin ez daukazu ezer. Gainera, delinkuentzia asko dago. Ezin duzu eraztunik ere jantzi, bestela eskua mozteko kapaz da jendea. Hala ere, jendea hemen baino alaiagoa dela iruditzen zait. Hemen jendea serioagoa da eta erlazionatzea gehiago kostatzen zaitzue.

► Zer izan da zailena?

Egia esan, ez dut zailtasunik izan. Paperik gabe bizi izan naizen denbora gogorra izan da, baina gainontzean ondo moldatu naiz. Eguraldiak harritu nau, nik ez nuen uste hainbeste hotz egiten zuenik hemen. Udako erropak bakarrik ekarri nituen eta iritsi bezain pronto, negua zen hemen. Berehala utzi zidaten erropa egokia lagunek, eskerrak!



EKUADOR

- **Hiriburua:** Quito
- **Azalera:** 270.667km²
- **Biztanleria:** 13.184.000 (2001)
- **Dentsitatea:** 44,7 hab/km²
- **Erligioa:** Katolikoak (%94), protestanteak (%3).
- **Gobemua:** Errepublikak demokratikoa.



GAZTIA NAIZ

lotsaGABE

Borja Mallo

Zer egin duzu udan?

Herrira zaintzen gelditu naiz, ez naiz kanpora joan.

Ligatu al duzu aurtengo oportetari?

Ez, lagunekin ibili naiz parandan.

Igami al duzu iraitleko aldapa?

Ez. Klasean hasi gara, baina oraindik ez daukagu lan handirik.

Etorkizunean zer izan nahi duzu?

Informatikaria, ordenagailuak asko gustatzen zaizkit.

Guraso eta semeak izan al daitezke lagunak?

Izan daitezke lagunak, baina gehiago gurasoak.

Noiz egin zenuen negar azkenekoz?

Aspaldi, ez naiz gogoratzen.

Zerk ematen dizu lotsa?

Jende askoren aurrean aurpegia eman beharrak.

Gorrotu duzun janaria...

Alkatxofak, ezin ditut jan.

Zer dogo zure ohe azpian?

Jantzi biferiko amairu bat.

Edalontzia erdi hutsik ala erdi beteta?

Erdi hutsik, nahiko pesimista naizela uste dut.

Arazista al zara?

Ez, denekin konpontzen naiz ondo.

Zerk kezkatzen zaitu?

Bakaridadeak. Nire gurasoak hiltzeak kezkatzen nau.

Ikusi duzun azken pelikula?

Ez naiz zinera joaten, telebista ikusten dut.

Politika ala futbola?

Futbola, dudarik gabe!

Sinisten al duzu erlijioan?

Hil eta gero zerbait egon behar da, bestela zertarako jaiotzen gara?

BARREN

biluzik

sexologia txokoa



Eider Goiburu [Sexologoa]

Nudismoa

Bukatu da uda. Non gelditu dira parrandak, ligeak, hondartza, eguzkia uuummm... eguzkia gorputz osoa laztantzen... gorputz osoa esan dut? Ez, ezinezkoa, eguzkiak gorputz osoa laztantzeko biluzik egon beharko ginateke eta hori nudismoa da, ez, ez, ez!!!

Nola jarriko naiz ni biluzik? Ze lotsa! Beste batzuk biluzik ikusita ere lotsatu egingen naiz eta!

Oso deserosoa da! Beraiek badituzte beraien txokak...

Gainera ez da niregatik bakarrik, eta umeak? Ez dut uste umeentzako ona denik jende heldua biluzik ikustea...

Nudismoa praktikatzeko gaur egun, ia-ia ezkutatu beharra dago. Egia da espazio batzuk badaudela, baina zein espazio dira? Inork nahi ez duen zatirik txi-

kiena: urrun dagoelako, iristea zaila delako, medusak daudelako...

Nudismoa, legala da, hau da, edozein tokitan da posible biluzik egotea, baina hau ez da onartzen. Gehienetan gainera, umeak erabiltzen dira kontrako argumentutzat eta ikerketa ugari diotenez, familia nudistetan hezitzen diren haurrek, autoestima hobea dute beraien gorputzarekiko, jarrera hobea dute sexualitatearekiko eta errespetu gehiago dute besteekiko. Ez al da logikoa haur bati

erakusten bazaio bere gorputzeko atal batzuk ez tali beharra dagoela pentsatzea atal horiek lotsagarriak direla edo behintzat zerbait txarra dutela? Nudistekin, guztiz kontrakoa gertatzen zaie. Eta zer gertatzen da nudisten eskubideekin? Nudismoak ez dio inori minik ematen, norberak eskubidea behar luke biluzitu nahi duen ala ez erabakitzeko. Eta denok dugu eskubidea leku publiko guztietan disfrutatzeko bai jantzita eta baita biluzik ere!

gazte
informazioa
Kultur etxean. Bigarren solairuan
Tel.: 943 74 14 61

Lan dosierrak, bekak, lehiaketak... guzti honen inguruko informazioa

Gazte informazioko panelean aurki dezakezu!

JESUS ASTIGARRAGA

KARAKATE MIKOLOGIA ELKARTEKO KIDEA

«Perretxikoak batu eta freskoan jan behar dira»



Mila kolore eta zaporetako basoko bitxiak dira perretxikoak. Euskal baso hezeek euskal sukaldeari egiten dioten oparia. Domeka honetan itxura guztiak ikusi ahal izango ditugu Plaza Handian, Karakate Mikologi Elkarteak antolatzen duen Haurrentzako Perretxiko Lehiaketan. Jesus Astigarraga perretxiko zale amorratua da eta urteak daramatza gaztekoen artean perretxikoekiko zaletasuna pizteko helburuarekin sortu zen lehiaketa antolatzen.

► 32 urtean mikologia zaletu bat baino gehiago sortuko zenuten, ezta?

Bai. 6 edo 7 urterekin hasi eta 15 urte bete arte urtero parte hartu duen jendea ezagutzen dut, eta hauek, semeei pasa dizkiete ezagupenak eta afizioa. Perretxikoen mundua modu didaktikoan ezagutaraztea zen gure hasierako asmoa: gazteek perretxikoak bereizten jakin eta mendian nola ibili ikas dezatela. Asko harritzen nau, esaterako, zuhaitzen izenetaz galdetuz gero, gehienek ez daukatela ideiarik ere. Ezta ohikoenak ere. Natur Zientziak ematen dituztela eskolan? ez dakit ba zer ikasten duten. Mendia irakurtzen ikasi behar da, perretxiko bakoitza zer zuhaitzi lotuta dagoen, e.a.

► Eta zeu, noiztik zara perretxikozale?

7-8 urterekin udak baserrian pasatzen nituenean nire egitekoa zen perretxikoak batzearena. Zeharo ezberdina zen, ordea. Ez zegoen perretxikoak ezagutzeko jakin-minik. Baserrietan tradizioz jaten ziren hiruzpalau perretxiko ezagun batzen ziren... eta kitto! Orain, lehen jaten ez ziren perretxiko mota asko jaten dira.

► Iazko lehiaketa arrakastatsua izan zela uste dut.

Iaz 93 lagunek parte hartu zuten 27 taldetan banatuta, eta kalitateari dagokionez, azken 20 urteetako onena izan zen;

bai aurkeztutako espezien aniztasunagatik eta baita hauek lortu zuten puntuaketatik. Eta hori araudia aldatu genuela! Orain espezie bakoitzeko ale bat aurkeztearekin nahikoa da; espezie bereko bilduma edo perretxiko sortak batuz perretxikoen birsortzea kaltetzen baita.

«Lehen jaten ez ziren perretxiko mota asko jaten dira orain»

► Hasiberrientzako gomendioak...

Garrantzitsuenak: ezagutzen ez dena ez hartu eta are gutxiago jan. Ikertu edo norbaiti galdetzeko bada, ondo dago hartzea, baina inolaz ere jateko. Askotan galdetzen didate "holakoak dauzkat etxean, jatekoak al dira?" Eskuan daukazuna bai, baina etxekoak ez dakit zer diren, erantzuten diet. Jakinmina izanez gero, perretxikoak nola sailkatu modu argi eta errazean azaltzen duten liburuak badaude. Aranzadik ater-

tako "Setas del País Vasco, del campo a la cocina" kasu. Oso didaktikoa eta praktikoa, mendira besapean eramateko modukoa.

► Hiru perretxiko gustukoena?

Hainbat buru hainbat aburu, baina niretzat Gibel Urdina eta Onddo zuri eta beltza dira onenak. Amanita Cesarea famatuarekin batera gainontzekoen gainetik daude. Udaberriko zizak zapore fuerteezia du. Egun batean jan eta hurrengoan ez daukazu errepikatze gogorik. Jateko ez daukate osagarri askoren beharrik, olio eta gatz pittin batekin nahikoa da.

► Egia al da perretxikozale peto batek sekula ez dizula esango non aurkitu dituen?

Ez dakit ba! Ni neu ez naiz ezkutuan ibiltzen eta baten baino gehiagotan erakutsi diet hasiberriei zein diren toki onak. Anbizioa da arriskurik handiena. Ahalik eta perretxiko gehien batu, kontserbak egin, ... horrek ez du balio. Perretxikoak hartu eta freskoan jan behar dira. Perretxikoen gehiegizko komertzializazioa mendia kalterako da. Oso esplotatuta dauden toki batzutan hasi dira mugak jartzen: ez dute 2 kilotik gora batzen uzten. Izan ere, egunero-egunero perretxikotara joaten diren familia antolatuta daude. Horrelako jaduerek ez diote basoari errekupeartzeko astirik ematen.

GAZTEAK

Naiara Martin izango da Gazte Informazio Guneko arduradun berria



Maider Rejasen lekukoa hartuko du Naiara Martin gazte elgoibartarrak, eta bera izango da Gazte Informazio Guneko (GIG) arduradun berria. Aurpegi berria eta ordutegi berria. Hemendik aurrerantzean honako ordutegia izango du GIGek: martitzen, eguazten, eguen eta barikuetan 17:00etatik 20:00etara. Biluzik Sexologia Zerbitzua, berriz, astelehenetan izango da ordutegi berdinarekin. GIGeko emaila: elg.gzerbitzua@terra.es eta telefonoa: 943 74 14 61 dira.

Bestalde, Gazte Guneak antolatzen duen "Gomendatzen dizut: merezi du!", gazteek oporretan egiten dituzten bidaia eta bisiten inguruko informazio interesgarria trukatzeko ekimen edo lehiaketak zabalik jarraitzen duela gogorarazi nahi dute. Informazio guztia www.aizue.com webguneko blogean jasotzen da, kontsultatzeaz gain, jasotako gomendioen informazioa osatzeko aukera luzatzen duelarik. Lanak urriaren 17ra arte entregatu ahal izango dira Elgoibarko Gazte Informazio Gunean

"Koloreen Zirkoa" antzezlanadatorren barixakuan Herriko Antzokian

Kiribilka egitasmoaren barnean, Berbaroko antzerki taldeak "Koloreen zirkoa" ikuskizuna eskainiko du datorren barixakuan (irailak 29) Herriko Antzokian, arratsaldeko 17:30ean hasita. Ikuskizun hau, 2-6 urteko haurrei eta hauen gurasoei zuzenduta dago, baina interesa duen beste edonork bertara joateko aukera izango du. Zirkon honetako pertsonaiak 10 kolore dira eta Berbaroko kideen hitzetan, "Itzalen antzezlan honekin koloreen izaera eta esanahia desmitifikatu nahi izan ditugu. Horrez gain, bizitzan ilusio eta ahaleginarekin gauza asko lortu daitezkeela erakutsi nahi dugu". Ikuskizuna dohainik izango da.



KAJANEF

Pintxoetan sukera zabala

13, MUGURUZA, 7 Tel.: 943 74 16 76

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8etatik aurrera

Pedro Muguruza, 5 Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

MICHEL MARMIER KIROPRAKTIKOA

«Biztanlegoaren %5ak ditu jaiotzetiko akatsak bizkarrezurrean»



Nork ez du sekula bizkarreko edo lepoko minik eduki? ez larritu, estatistikak diotenez, hiru lagunetik batek jasaten ditu. Michel Marmier Bizkarrezurrean Doktore Espezialista (Kiropraktikoa) da. Hainbat gomendio eman dizkigu. Gaian sakondu nahi izanez gero: www.saludvertebral.com

► Azalduko al diguzu berba gutxitan zer den Kiropraktika?

Nerbio sistema, bizkarrezurra eta osasunaren artean dagoen erlazioaz arduratzen den zientzia da. Etimologikoki, eskuekin ongia egitea esan nahi du grekeratik datorren berbak. Bizkarrezur baretik igarotzen den nerbio sistema organismoko funtzio guztien kontrolatzailea eta erregulatzailea da. Hortaz, bizkarrezurra ez badago behar bezala lerrotuta, orekatuta, eragin zuzena du nerbio sisteman eta ondorioz gure osasunean.

► Zer gaitz sendatzen lagun dezake?

Kiropraktikak ez ditu sintomak tratatzen, gorputzak bere kasa sendatzeko daukan gaitasunean oinarritzen baita, betiere, gorputza ondo orekatua bada. Hala ez bada, bizkarrezurra doitu edo egokituz, behar bezala funtziona dezan ahalbidetzen dugu. Hezurrekin eta muskulu, tendoi eta lokailuekin zerkusia duten lesio guztiez gain, beste gaitz askoren muinera irits gaitezke. Esaterako, ahopeka lo egitearen ondorioz sortutako bertigoak, insomnia, sinusitisa, tortikulisa, e.a.

► Bizkarreko mina gaitz zabaldua da.

Epidemia bat da. Biztanleriaren %70ak izaten ditu bizkarreko minak. Eta areagotzen ari den arazoa da. Hasi nintzenean baino kasu gehiago eta gero eta gazteagoak datozkit kontsultara.

► Kirol munduan zer erabilpen izan ditzake Kiropraktikak?

Kirolzalea naiz eta kirola egitearen alde nago, noski! baina denentzat ez da mesedegarria. Hasteko, biztanlegoaren %5ak ditu jaiotzetiko akatsak bizkarrezurrean. Hortaz, edozein kirol egin aurretik, bizkarrezurra eraitzen duten hezurrezko edo kartilagozko segmentuak, alegia, ornoak (vertebrak) ondo lerrotuta eta orekatuta dauzkagun egiaztatu beharko genuke azterketa baten bitartez. Urtean behin edo birritan aztertu beharko genuke. Autoarekin egiten badugu, zergatik ez gure osasunaren mesederako denean? Hala ez bada, lehendik dauzkagun arazoak areagotzeko arriskua handia da.

► Ba al dago bizkarrezurrarentzat arriskutsuagoa den kirolirik?

Euskal Herrian frontoian jokatzen diren kirolek sortzen dute arazorik gehien. Gorputz orekatua izanez gero, ez dago arazorik, baina bestela, igerian egitea ere kaltegarria izan daiteke. Halere, igeri egitea eta ibiltzea dira mesedegarrienak.

► Eserita ala zutik lan egitea da kaltegarriagoa bizkarrezurrarentzat?

Eserita lan egitean, gerialdeak zutik ariko bagina baino presio bikoitza jasaten du, gorputzaren pisu guztia, alegia. Gizakia ez dago eserita lan egiteko diseinatuta. 20 minutuero altxatu edo posturaz aldatu beharko genuke. Eta altxariak gure beharretara egokitu, ez alderantziz.

«Gizakiaren bizkarrezurra ez dago eserita lan egiteko diseinatuta»

ESPELEOLOGIA

Espeleologia irteera bana antolatu dute Leizarpek eta Gazte Asanbladak

Espeleologia zaletuak zorioneko daude asteburu honetan. Zaletuak bakarrik ez, baita haizulo batean sartzeko sentsazioa estrainekoz probatu nahi dutenak ere. Izan ere, Leizarpek eta Gazte Asanbladak irteera bana antolatu dute. Leizarpe Taldeak gidatutako taldea Ermitia haizulora joango da zapatu honetan, hilaren 23an. Sasiola eta Astigarribiatik gertu dago Joxe Miel Barandiaranek aurkitu zuen aztamategi arkeologiko hau. Besteak beste, hezurak, orrazak, arpoiak, keramikak, aker, orein eta moluskuen aztarnak topatu zituzten bertan. Joan nahi duten guztiek Leizarpek Santa Klara kalean duen lokalera agertu beharko dute goizeko 9:00etarako. Izena emateko telefono bat ere jarri dute: 650 012 400 (Iban) edo 646 244 474 (Joserra). 16 urtetik gorakoen zako irteera izango da.



Gaztetxetik kobazulora

"Kobazulotan ibiltari" izenburupean espeleologia irteera antolatu du Gazte Asanbladak. Domeka honetan, hilaren

24an, izango da irteera 9:00etan. Izena ematen dutenek ez dute nora joango diren jakingo, kobazulo sorpresa izango baita. Izena emateko: 943 74 87 82.

70 atletekin hasi du denboraldia Mintxeta Atletismo Taldeak



Irailaren 11n ekin zion Mintxeta Atletismo Taldeak denboraldi berriari. Une honetan, benjamin, alebin eta infantil mailako 70 atleta daude taldean. Lau entrenatzaile arduratzen dira gaztekoen entrenamenduetaz: Daniel Rino, Pedro Cardaba, Pedro Santiago eta Hicham

Fathoun. Azken hau nazioartean aritutako korrikalari marokoarra. Astelehen, asteazken eta barikuetan egiten dituzte entrenamenduak Mintxetan, 19:00etatik 20:00etara. Inork atletismoan hasteko asmorik balu, aipatutako egun eta orduetan bertara joatea besterik ez du.

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapata, 23

11:30 Elgoibar - Eibartarak (Neskak)

16:00 Elgoibar - Zumaiako (1. erreg.)

18:00 Elgoibar - Aurrera Ondarroa (O. Jub.)

Domekia, 24

12:00 Elgoibar - Lengokoak (Inf. A)

Bizikletak konpontzeko tailerra

Mugikortasun Astearen barruan antolatu diren ekintzetako bat bizikletak konpontzeko tailerra izango da. Zapatu honetan (irailak 23) izango da Plaza Handian. Bertan, gorpilen zulatuak eta matxurarik ohikoak nola konpondu behar diren azalduko dute adituek eta nahi duenak bere bizikleta eraman ahal izango du ikasitakoa praktikan jartzeko.

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxea salgai Urasandin. 4 logela eta trasteroa. **636199732**

(19:00-21:00)

▶ Etxea salgai Erretxindin. 90m². Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara.

680707639

▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Berritua. Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko moduan. **660884060**

▶ Etxea salgai Mendaro erdialdean. 3 gela, 2 komun, sukaldia, jangela eta egongela. Garaje itxia, ganbara, berogailu zentrala, erdi jantzia. **659801032**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.

3 logela, sukaldia, komuna eta egongela.

Dena kanpoaldera.

Bizitzera sartzeko prest.

943 03 38 44

686 62 21 92

▶ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. **677 77 29 20**

ALOKAIRUA

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron. **687209139**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **669223527**

▶ Negozioa hemen dudalako, etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron. **697897899**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren. **690296857**

▶ Pisu txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **626914904**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **666032715**

▶ Etxebizitza txikia alokatzen da erdialdean. **660 042 159**

▶ Logela bat alokatzen dut Elgoibarren. **943741881**

▶ Ikasleentzako pisua alokatzen dut Gasteizen, erdialdean. **689789743**

[AUTOAK]

▶ Renault Traffic SS-X furgoneta salgai. 220.000km. Sukaldia, dutxa, berogailua eta literak. **679 60 92 83**

(21:30-22:30)

▶ Ford Escort Atlanta turbo diesel autoa salgai. 90 zaldi, egoera onean. Aukera bikaina. **660363815/943740786**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garajea alokatzen da Trenbide kalean. **943 74 17 14**

▶ Garajea alokatzen da Pista Beltzaren azpian. **943748853**

▶ Lokal bat hartuko genuke Elgoibarren. **616224238/600009990**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea garbiketa lanetarako, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. **646235195/636362251**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **943530803**

• Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Egunez edo gauzez. Orduka ere. Esperientziaduna. **943172896 (Merxe)**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **639020180**

• Emakumea lanerako prest. **660800954**

• Mutil gaztea arratsalde eta as-
teburuetan lanerako prest. **627104915**

• Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile, kamarero... **692703069 (Luis)**

• Pertsona bat eskaintzen da garbiketa lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. **626 914904 (Rosa)**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **649 36 81 37**

• Ingeles Filologiako klase partikularak ematen ditut. **626 41 93 54**

• LH eta DBHko klase partikularak ematen dira. **943 53 10 54**

• Ingeles klase partikularak ematen ditut. Talde txikiak. **679 11 34 46**

• Emakumea lanerako prest: nagusiak zainduz (geriatria erizaintzako titulua), umeak zainduz, garbiketa lanak, dendako kutxazain... **696 13 67 80**

• Neska garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. **639 88 20 04**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest: elkarteak, tabernak, lokalak... **667 709 439**

• Emakumea etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta informeak ditut. **620674034/943174134**

• Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. **699 609 190**

• Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. **943 53 15 53**

• Emakumea edozein lan egiteko prest. **680304982**

(Candelaria Fernandez)

• Emakume gaztea lanerako prest. **620 571707**

• Emakumea lanerako prest. **943 53 15 53**

ESKAINITZA

• Euskara irakaslea behar dut klase partikularak jasotzeko. **696 96 40 69**

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. **647416313**

• DBH1. mailako partikularak emateko pertsona bat behar dut. **626 23 75 70 (Ana)**

• Kamareroa behar da. **943 12 12 62**

• Goi edo Erdi Mailako Ingeniari Elektrikoa behar da. Siemens Step 7 Automaten programazioan eta Visual Basic. Ingeles maila altua. 28-40 urte. **943121608 (Jose Ramon)**

• Neska euskalduna behar da tabernan barran lan egiteko. Esperientziaduna. **670654921**

ABISUAK

• Europa batzuk topatu ditut portalean. Levisak, ume jantziak, emakume blusak... berri-berriak. Falta zaiolari Udaltzaingotik pasada dadila.

• 1956an jaiotakoekin kinto bazkaria Mendaron. Urriak 1, Landa jatetxean. Izena emateko azken eguna irailak 25. 60 euro sartu Kutxako 2101 0054 13 0125574137 zenbakian. **943 756059**

• Udako trajea galdu nuen etxe batetik besterako trasladoro egite-rakoan. Errosario kalean. **695711836/943740171**

• Txapak irekitzeko aparatua galdu nuen San Bartolome jaietan. Balio sentimental handia dauka. 200 euro ordainduko dizkiot aurkitu duenari. **669682990**

• Umearen urrezko pultsera galdu nuen irailaren 3an usua inguruan. Sare izena dauka idatzita. **615707138**

• Katu txiki bat oparitzen da. Mantsoa, lasaia eta maitagarria. **661225149**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak eta muxu bat zure 1. urtebetetzean. Familiakoan eta lagun guztien partez.



▶ Zorionak **Nerea** irailaren 23an 4 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki, Ainhoaren partez.



▶ Zorionak **Jara** irailaren 19an 2 urte bete zenituelako. Ahizpa Celia eta Marina, lehenusina Maria eta Ireneren partez.



▶ Zorionak **Itigo** irailaren 19an 10 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Garazi** hilaren 26an 7 urte haundi egingo dituzulako. Muxu potolo bat familiakoan eta Julenen partez.

▶ Zorionak **Nekane** irailaren 16an zure eguna izan zelako. Familiakoan, bereziki, Mikel eta Oihanaren partez. You are the best teacher in the Earth North.



▶ Zorionak **Pello eta Manex** irailaren 25ean 2 urte beteko dituzuelako. Etxekoan, bereziki, Andrea eta Mariaren partez. Muxu handi bat.



▶ Zorionak **Felipe eta Rosal**! Jadanik 15 urte elkarrekin! Ibane, Maria Luisa, Pedro eta Mariaren partez.



▶ Zorionak **pareja!** Lekunberriko osaba-izeba eta lehen-gusu haundi eta txikien partez, muxuk!!



▶ Zorionak **bikote!** Zuen 1. urtebetetzea ondo-ondo pasatzea opa dizuegu. Muxu asko ikastolako laguntxoan partez.



▶ Zorionak **poxpolineri** zuen eguna pasatu eta izango delako. Muxu potolo bana eta ondo pasa igandean.




▶ Zorionak **pareja!** Oso ondo pasa zuen ezkontza egunean. Olga eta Mikel, muxu bat familiakoan eta lagunenen partez.



▶ Zorionak **bikote!** Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontza egunean. Bikotearen partez, eskerrik asko ezkontzara joan zineten guztioi.



▶ Zorionak **Maria eta Paula** zuen urtebetetzean.



▶ Zorionak **bikote!** Olaia, lapurtu al dozu ilargia Mikelentzat? ondo ibili, eta formak! zure lagunak.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



[OKINDEGIA]



24 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ	
22 Bidasolo	
23 Etxeberria (Santa Ana)	
24 Etxeberria (Santa Ana)	
25 Fernandez	
26 Yudego	
27 Zabaleta	
28 Etxeberria (Erosario)	
29 Ibañez	

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA (IRAILA)

Astegunak: 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 18:45, 20:00, 20:45

Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00

Igandeak eta jaiegunak: 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR (IRAILA)

Astegunak: 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 22:15.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.

Asteburu eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 902 543 210

[22 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian

19:30 MANIFESTAZIOA

Audientzia Nazionala Stop Plaza Handitik

20:30 18/98 PROZESUARI

BURUZKO HITZALDIA

Herriko Antzokian

Hizlariak: Mariano Ferrer (kazetaria), Jone Goirizelaia (abokatua) eta Juan Mari

Mendizabal (auziperatu elgoibartarra). Moderatzailea:

Hasier Etxeberria (kazetaria)

[23 ZAPATUA]

09:00 ERMITIAKO HAITZULORA IRTEERA

Irteera: Leizarpek Santa Klara kalean duen lokaletik

Antolatzailea: Leizarpe Taldea Izena emateko: 650 012 400 (Iban) edo 646 244 474 (Joserra)

11:00 TXANKAKUA ELGOIBARKO

MERKATARI ETA ZERBITZU

ELKARTEAREN VI. FERIA

Plaza Handian



ELGOIBARKO BH INSTITUTUA

2006-07 ikasturtea

Arratsaldez

EŠKAINNTZA PARTZIALA

ERIZAINZAKO ZAINKETA OSAGARRIAK

Baldintzak:

- 21 urte beteta edo 2 urtetako lan-esperientzia.
- Bigarren Mailako Hezkuntzako graduatua edo Erdi-mailako ziklootarako sarbide-proba gaituta.

Tel.: 943748019

E-posta: bulegoa@elgoibarbh.net

Izen-ematea irailaren 26a arte.

11:00 ALZHEIMER-ARI BURUZKO MAHAI INFORMATIBOAK

Plaza Handian eta King Kong-en
19:00 BIZIKLETAK KONPONTZEKO TAILERRA
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Udala, Debegesaren laguntzarekin

[24 DOMEKIA]

09:00 KOBAZULOETAN IBILTARI
 Espeleologia Irteera. Kobazulo sorpresa.
 Antolatzailea: Gazte Asanblada
10:20 BIZIKLETA IRTEERA DEBABARRENAN ZEHAR
 Goizeko 9:30etan Mallabiatik aterako da. 10:20ak aldera pasako da Elgoibartik. Antolatzailea: Udala, Debegesaren laguntzarekin
10:00 DEBARROKO HAURRENTZAKO XXXII. PERRETXIKO LEHIAKETA
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Karakate Mikologi Elkarte

[28 EGUENA]

19:30 EZKER ABERTZALEAREN ASANBLADA
 Gaia: azken hilabeteotako egoera politikoaren balorazioa eta aurrera begirako lanak zehaztea.
 Kultur Etxean

[29 BARIXAKUA]

11:00 MEZA NAGUSIA
 Aiastia (San Migel) auzoko jaiak San Migelgo basilizan
 Ondoren, Ziarda eta Mañu bertsolariak
13:00 AUZOKO BIKOTEEN ARTEKO XXIII. PILOTA TXAPELKETAREN FINALA
 Aiastiako Murkaikupe frontoian
 Gardoki taldeak alaituta
17:30 "KOLOREEN ZIRKOA" ANTZERKIA
 Taldea: Berbaroko Antzerki Taldea
 Kiribilka programaren barruan Herriko Antzokian
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.
19:00 "RUBEN AROZENA 1966-2005" ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
 Kultur Etxeko erakusketa gelan
 Orduetgia: 19:00-21:00 (astelehenerik zapatuta) eta 12:00-14:00 (domeka eta jaiegunetan)
21:00 AUZOTARREN AFARIA
 Aiastia auzoko jaiak
 Ondoren, Gardokirekin erromeria
01:00 DISKO FESTA
 Aistian
02:30 STRIPTEASEA
 Aistian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«El Aura»
 22, barixakua: 22:15
 23, zapatua: 22:15
 24, domekia: 22:15

«Un Franco, 14 pesetas»
 23, zapatua: 19:30
 24, domekia: 19:30
 25, astelehena: 21:30

«El Taxista Ful»
 26, martitzena: 22:15
 28, eguena: 22:15

«Un Verano en Berlin»
 27, eguaztena: 22:15
 29, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«El viento que mueve la cebada»
 22, barixakua: 19:30
 23, zapatua: 17:00-19:30-22:15
 24, domekia: 17:00-19:30-22:15
 25, astelehena: 19:30-22:15
 26, martitzena: 19:30-22:15
 27, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Un Franco, 14 pesetas» (Z.K.)




Zuzendaria: Carlos Iglesias.
 Antzezleak: Carlos Iglesias, Javier Gutiérrez.
 Espainia, 1960. Martinek eta Marcosek, lan bila Suitzara joatea erabakitzen dute. Askatasun eta aurrerapenen Europara egindako bidaia da, familia guztia Espainian lagata. Pentsamolde oso ezberdineko jendea topatuko dute Suitzan eta bertako kulturara derrigorrean egokitu beharko dira. Martinen emazte eta semeak eta Marcosen neskalaguna beraiengana joaten direnean, ordea, akabo pagotxa! ezkongabeen bizimoduaren libertateak, alegia.

«El Aura» (Zine Kluba)

Zuzendaria: Fabian Bielinsky.
 Antzezleak: Ricardo Darín, Dolores Fonzi.
 Izenik gabeko taxidermista bamerakoi eta ixil batek egingo duen bidaia sinestezina kontatzen du Fabian Bielinsky argentinarrak ("Nueve Reinas") hil aurretik filmatu zuen azken luzemetraiak. Lapurretarik perfektu eta arrakastatsuenak egitearekin obsesionaturik bizi da Ricardo Darinek antzeztan duen pertsonaia. Dena bere buruan, imaginazioan, gertatzen da, harik eta, errealitateak kamio blindatu bat lapurtzeko aukeraren aurrean jarriko duen arte.

Atzera hegira



1961 . urteko erretratu zahar hau **Pascual Molin**ak laga digu. Atzean laga berri dugun udari agur esateko ezin aproposagoa iruditu zaigu. Igarriko zenuten moduan ez da lpanemako hondartza, Debako hondartza baizik. Atzekaldean ikus daitekeen etxeak ("Sorgin-Etxe") ez du zalantzarako tarterik lagatzen, ia mende erdi pasa bada ere leku pribilejiatu berean jarraitzen baitu, Debatik Itziarrera bitarteko itsas bazter ikusgarrian. Argazkikoez zer esan? bat: hondartzako denborapasak lehen eta orain berdinak ziren. Begira bestela hankapean duten baloi puzgarriari. Bi: bainujantzien modak hobera edo txarrera egin duela iruditzen zaizue? bakoitzak atera ditzala bere ondorioak...

Ikus dezagun nortzuk diren hondartzako mutil hauek, ezkerretik eskumara: **Angel Lopez Valero** (), **Santiago Acosta**, **Pascual Molina** eta **Francisco Rolo**.



ESKERTZA

2006ko irailaren 7an, 80 urte zituela hil zen **Maria Rodriguez Olaizola**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



M4A



Emakume,
gizon eta
haur erropak



%10 eko
deskontua
emakumeentzako
neurri bereziko
arropetan



txartel hau
aurkeztean



Julio Urkijo, 24 · AZKOITIA · Tel.: 943 85 07 36

Irailak 22tik urriak 6ra



Eguneroko ezusteeak
ez dezaten atzerapenik
ezta produktibotasun
galerarik sortu

INFORMÁTICA

informática circulan



ELGOIBARKO AIASTIA (SAN MIGEL) AUZOAN

2006ko JAIAK

IRAILAK, 29 - Ostirala

11:00 MEZA NAGUSIA

Ondoren, ZIARDA eta MAÑU bertsolariak

13:00 Auzoko bikoteen arteko XXIII. Pelota

Txapelketaren azken partidua,

GARDOKI taldeak alaiturik

21:00 AUZOTARREN AFARIA

Ondoren, Erromeria GARDOKIrekin

01:00 DISKO FESTA

02:30 "STRIPTÉASE"

22:30 HARITZ DANTZA TALDEAREN
erakustaldia

Ondoren, ERROMERIA LUHARTZ
taldearekin

01:00ak aldera BOLO TXAPELKETA

Sariak:

1. saria: Husqvarna Motoserra
Markinako EGUR LUR-ek emana
 2. saria: 70 euro
 3. saria: 50 euro
 4. saria: 25 euro
 5. saria: 15 euro
 6. saria: Sorpresa
- Auzoko lehenengoarentzat garaikurra.

IRAILAK, 30 - Larunbata

17:00 ARTZAI TXAKUR TXAPELKETA

Euskal Herriko arraza libreko finala

Partaideak:

- Carlos Pinedo (Araba) Txiki txakurarekin
- Carlos Pinedo (Araba) Xuster txakurarekin
- Pello Seguro (Gipuzkoa) Arxai txakurarekin
- Mikel Eguren (Gipuzkoa) Xarpa txakurarekin
- Jesus Larrañaga (Gipuzkoa) Seru txakurarekin
- Jose A. Arrillaga (Gipuzkoa) Lagun txakurarekin
- Felix Irigoin (Nagarroa) Sazur txakurarekin
- Jose A. Aguirre (Bizkaia) Urki txakurarekin
- Roberto Comenzana (Bizkaia) Argi txakurarekin

URRIAK, 1 - Igandea

11:30 MEZA NAGUSIA

Ondoren, BALTZOLA ANAIK trikitilariak

17:00 IDI DEMAK

- OLIDEN (Orio)
- ETXABE (Aizarnazabal)
- EPIOLA (Oikina)

Sariak:

1. saria: 750 euro, garaikurra eta mantak
2. saria: 660 euro, garaikurra eta mantak
3. saria: 600 euro, garaikurra eta mantak



Oharra:

Aparkalekua egongo da. Antolatzaileak ez dute
gerta daitezkeen ezbeharren erantzunkizunik hartuko.



Laguntzailea
Elgoibarko
udala